

/ Nabarmentzekoak

- > 8.100 pertsona baino gehiago igaro ziren 2025ean Getxoko Ingurumen Aretotik (2. or.)
- > Jon Plazaolaren "Aita" aitatasunari buruzko komediarako sarrerak agortu dira (3. or.)
- > "Sobre las cinco almas de Francesco Pasquale", narrazio independenteen bidez idatzitako nobela (4. or.)



*Udalak udalerriko sei saltoki saritu ditu "Getxo Hurbil" sarien III. edizioan (4. or.)

Negufest. Hilak 13, ostirala, 21:00etan, Muxikebarrin, Standstillen rock kontzertua. 25 euro.

Antzerkia. Hilak 14, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "Mejor no decirlo", Imanol Arias eta María Barrancorekin. Sarrerak agortuta.



Amaia Aguirre:

Ez dut alkatetza utziko zarata bere proiektu bakarra egin duenak eskatu duelako

Amaia Aguirre Getxoko alkateak ez du alkatetza utziko "zarata bere proiektu bakarra egin duenak eskatu duelako", eta erakunde horren buru izaten jarraituko du "horretarako legitimitatea dudan bitartean, erantzukizunez eta irmotasunez, eta lehen eguneko konpromiso berarekin". Hala adierazi zuen PPK eta Elkarrekin Podemosek urtarrileko osoko bilkuran aurkeztutako mozioen aurrean, besteak beste, Algortako San Nikolas 11 eraikina eraisteko kasuaren kudeaketatik. PPK aurkeztutakoa atzera bota zen eta Elkarrekin Podemosek planteatutakoa onartu zen, izaera testimonial eta ez exekutiboarekin.

Aguirrek gogorarazi zuenez, "ez gaude ebazpen judizial baten aurrean, ezta egiaztatutako gertakarien aurrean ere. Eta, hala ere, erruduntasun aurreratuaren eta paralisi instituzionalaren kontakizun bat eraikitzen saiatu dira. Hori, erakunde baten erabilera politikoa da. Denborak eta gertaerak erakusten badute kontakizun honek ez duela euskarriarik, norbaitek bere gain hartu beharko du eragindako kaltearen erantzukizun politikoa eta morala: pertsonai, erakundeari eta konfiantza publikoari. Izen ona galtzea ez delako ezabatzen. Eta gobernatzea ere behar denean itxaroten jakitea delako. Zerbait oso argi badut, udalaren buruan dudak jokabide etikoa da".

Oposizioak kritikatu egin zuen legegintzaldi honetan Gobernu Taldeak, oro har, eta alkateak, bereziki, hainbat gairen gainean egindako kudeaketa, San Nikolas 11.eko eraikina eraisteko kasuarekin amaitu baitute; eta kudeaketa horrek honako ezaugarri hauek izan ditu: "gardentasunik eza, informazioa ez-kutatzea eta udaleko agintari gorenak jendaurrean agertzeari uko egitea". PPK alkatearengana jo zuen, eta dimisioa eskatu zion, alderdi horren



iritziz, "herritarren eta bere alderdiaren bazterketa soziala baitu dagoeneko. Ertzaintza udal bulegoetan sartu izanak eta ondoren EAJko hiru zinegotzik dimisioa eman izanak agerian uzten dute kasuaren larritasuna". **EH-Bilduk**, berriz, adierazi zuen "alkateak ez duela erakutsi prozesu honetan lidergo pertsonalik", eta proposatu zuen "alkateari eskatzea, hurrengo udal hauteskundeak egin arte, oposizioko alderdi politikoa guztien presentzia bermatzeko Tokiko Gobernu Batzarrean, gardentasuna indartzeko eta 2022an onartutako Iruzurraren Aurkako Neurrien Plana aktiba dezala auzi honi dagokionez". Azkenik, **Elkarrekin Podemosen** ustez, "alkatea oposizioko taldeen kontrola oztokatzen saiatu da une oro, eta kasu honetako irregulartasunak nabarmenak dira; beraz, beharrezkoa da haren dimisioa eta aldaketa bat kudeaketan".

Bestalde, **PSE-EEk**, EAJ/PNVk gobernuan duen bazkideak, adierazi zuenez, "emandako lizentziaren aurka eraikin bat eraistea oso larria izanik, Zuzenbide Estatu batean eskatzen den lehenengo gauza abian den ikerketari errespetua da. Osoko bilkura hau ezin da epaiketa paralelo bihurtu. Poliziari dagokio ikertzea eta justiziari epaitzea. Oso larria da alkatearen dimisioa arma

politiko gisa erabiltzea gobernu eze-gonkortzeko. Egia eta erantzukizuna behar dira, baina baita gobernagarritasuna ere, kudeatzen jarraitzeko. Alkatearen dimisioak ez du ez argitasunik ez justiziarik ekartzen".

EAJ/PNVk argudiatu zuenez, "instrukzio-fasean dagoen prozedura judizial baten aurrean gaude, akusazio formalik gabe, epaiketarik gabe eta erantzukizunak zehazten dituen ebazpen judizialik gabe. Hala ere, alkatearen berehalako dimisioa eta Iruzurraren Aurkako Neurrien Plan bat aktibatzea eskatzen da, udal honetan errespetatu beharreko prozedura, berme eta araurik ez balego bezala". Era berean, gogorarazi zuen: "gestioa gardena eta zorrotza izan da eta San Nikolas 11ko obretan irregulartasunak detektatu zirenean, gobernu honek jardun zuen: obrak geldiarazi ziren, zegozkion zehapen-espeditenteak abiarazi ziren, justiziarekin lankidetzan arituzen hasiera-hasieratik, eta sumario-sekretua kendu zenean, ikertutako zinegotziek beren kargua alderdiaren esku utzi zuten eta dimisioak onartu ziren. Hori erantzukizunak hartzea da".

Bestalde, **Amaia Aguirre** alkateak esan zuenez, "gaurkoa akelarre po-

litikoa da, ordezkatzeko dudak alderdiaren eta nire figuraren aurka ondo kalkulaturako eszenifikazioa. Batzuk eskandaluak puzten eta edozein titular arma politikoa bihurtzen aritzen diren bitartean, nire ardura da erakundearen egonkortasuna bermatzea eta Getxorako gobernatzen jarraitzea. Horregatik diot itzulgingururik gabe: ez dut dimitituko oposizioak eskatzen dutelako. Ez dut alde batera egingo, zarata bere proiektu bakarra egin duenak hala eskatuta. Erakunde honen buru izaten jarraituko dut legitimitatea dudan bitartean, erantzukizunez, irmotasunez eta lehen eguneko konpromiso berberarekin".

Auzian ikertutako hiru zinegotzien kargugabetzea

Osoko bilkura honetan, San Nikolas 11ko eraikinaren eraisketaren auzian ikertzen ari diren EAJ/PNVeko hiru zinegotzien kargu uztearen berri eman zen. Hutsik egon ziren haien eserlekuak udalbatzen aretoan. Horien ordezkokoak Aingeru Torrontegi Ayo, Carlos Sergio Atxotegi eta Elisabete Basañez Pérez izango dira. Izendapen berri horien zain, Alkatetzak zuzenean bereganatuko ditu Langileria eta Antolaketa, Kontu-hartzailetza, Diruzaintza eta Tokiko Ekonomia Sustapenaren arloak (Getxolan zerbitzua izan ezik, hori PSE-EEren erantzukizuna baita).

Beste gai batzuk

Bestalde, Andres Isasi Musika Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiaren hasierako onespina egin zen, eta PPren mozio bat ere onartu zen, alkateari eskatzeko 2026ko Udalaren Aurrekontu Orokorren Proiektua berehala aurkezteko, indarrean dagoen legeriaren arabera izapidetu eta onartzen dela bermatzeko.



OTSAILAK 5 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Carla Simonen "Romeria" (AJB). 16 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

Outlet solidarioa. Romoko San Jose parrokian, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Arropa eta oinetakoak. Antolatzailea: Gizatiar. Hilaren 7ra arte, larunbata.

OTSAILAK 6 OSTIRALA

Errezitaldi poetiko-musikala. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Ángela Figuera: poesía". Asociación Artística Vizcaína eta Martxel Intxaurre (gitarra).

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Aita" (euskaraz), Jon Plazaolarekin. Sarrerak agortuta.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Federico Luisen "Simón de la montaña" (gaztelaniaz). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

OTSAILAK 7 LARUNBATA

Gorazarrea. Gerra Zibilaren, lehenagoko gatazka zibilaren eta frankismoaren biktimei. 12:00etan, Galeako pasealekuan dagoen "Oroimenaren liburua" eskulturaren ondoan.

Storytime for babies. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "The messy playroom" (ingelese). 1-2 urte. Izen-ematea (doan): getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Neguko bidaiia. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Tokyotik etxera bueltan", Juan Ortiz Triorekin. 5 euro.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Kaka" (euskaraz), Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe, Erika Olaizola eta Xanti Agirrezabalarekin. 12 euro.

OTSAILAK 8 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Ainbo, Amazoniako gerraria". 7 urtetik gorakoentzat. 2,50 euro.

Haur magia. 18:00etan, Muxikebarrin, Eleder magoa (euskaraz). Sarrerak agortuta.

OTSAILAK 9 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "El desafío de pensar: Hannah Arendt y el mundo que perdimos". Hizlaria: Cristina de la Cruz (Filosofoa eta Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuko ikertzailea). <https://sinopeblog.wordpress.com/>

OTSAILAK 11 ASTEAZKENA

Dokumental zikloa. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, José Luis Arrietaren "Mendiak 1976" (gaztelaniaz). Gonbidapenarekin (Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin).

OTSAILAK 12 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Laura Carreiraren "On falling" (AJB). 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

OTSAILAK 13 OSTIRALA

Eskola inauteriak. 10:30ean desfileen irteerak. **Algorta-Romo** Sarrikobasoko biribilguneetik. **Romo-Areeta** Romo ikastetxetik.

Erakusketa. Getxoarte. Romo Kultur Etxean, "Orden natural", Malu Riazaren grabatuak. Otsailaren 28ra arte.

Kontularien kluba. Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen topagunea.

Negufest. 21:00etan, Muxikebarrin, Standstill (rock). 25 euro.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Irati Gorostidiren "Aro berria". Nagusientzat. 3,50 euro.

OTSAILAK 14 LARUNBATA

Inauteriak. Romo. Santa Eugenia. 11:30etik aurrera, tailerrak eta jolasak, moztaro erakusketa eta herri bazkaria. 17:30etik aurrera, erraldoiak eta buruhandiak, txokolatada, haurrentzako musika, erromepunk eta nagusientzako musika.

Dantza plaza. 19:30ean, Santa Eugenia plazan, erronomia herriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

Neguko bidaiia. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Ai ene, maitasuna!", Olatz Saitua (sopranoa) eta Itxaso Sainz de la Maza (pianista). 5 euro.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Mejor no decirlo", Imanol Arias eta María Barrancorekin. Sarrerak agortuta.

OTSAILAK 15 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Paddington: aventura en la selva". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Patrick: heroi txikiak, balentria handiak". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Kimu" (euskaraz), Marie de Jongh konpainiarekin. 10 euro.

Antzerkia. Emakumeak eszenan. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Ganas de todo", Totum Teatrorrekin. Gonbidapenarekin (Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin).



Indarkeria matxista gaitzesteko elkarretaratzea

Amia Aguirre alkateak eta **Udaleko alderdi politiko guztietako ordezkariak**, asteazkenean, hilak 4, elkarretaratze isil instituzional batean parte hartu zuten, aurreko larunbatean, dibortzio-izapideetan zegoen emakume batek senarraren eskutik jasandako eraso larria gaitzesteko. Aurretik, eta Indarkeria Matxistaren aurreko Tokiko Protokoloa aktibatu ondoren, Getxoko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak aho batez onartu zuen Adie-

razpen Institutuzional bat. Horretan, besteak beste, erabat baztertu eta gaitzetsi zituen generoen berdintasun ezan oinarritzen diren jarrera sexisten ondorioz sortutako eraso guztiak; erasotutako emakumeari elkartasuna agertu zion, behar dituen udal zerbitzu guztiak bere eskura jartzearekin batera, eta lanean jarraitzearen alde egin zuen, benetako berdintasun balioetan oinarritutako gizartea lortzeko, indarkeria matxistarik gabekoa.

8.100 pertsona baino gehiago igaro ziren 2025ean Getxoko Ingurumen Aretotik

8.163 pertsona igaro ziren Getxoko Ingurumen Aretotik 2025ean, Udaleko Ingurumen Unitateak emandako balantzearen arabera. 2024an erregistratutako kopurua (8.132) baino pixka bat handiagoa. Bisitari guztietatik, 5.600 lagun inguruk, adin guztietako ikasleak eta pertsona helduak, parte hartu zuten iaz udal ekipamendu honek eskaintzen dituen hezkuntza-programe-

tako batean. Programa horien bidez, hainbat gai jorratzen dira, hala nola elikadura jasangarria, kontsumo arduratsua, birziklapena eta biodibertsitatearen kontserbazioa.



1.500 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten asteburuetan eta jaiegunetan egin ziren doako jardueretan: ingurune naturala ezagutzarazteko ibilbide gidatuak, ginkanak, ihes-gelak, eko-jostailuen tailerrak eta txiki-txikizako eskulan iraukorrek, kosmetika naturalari edo helduentzako energia berriztagarri buruzko ikastaroak eta abar. 2025ean 130 jarduera baino gehiago antolatu ziren.

Erortzea ekiditeko tailerra

Udaleko +60 Dinamizazio Zerbitzuak erortzea prebenitzeko tailer bat antolatu du, Osakidetzarekin lankidetzan. Doako saio bat izango da, otsailaren 23an, 17:00etan, RKE-Romo Kultur Etxean.

Besteak beste, adinekoen erorketak zergatik gertatzen diren eta ekiditeko moduak

azalduko dituzte, bizi-ohitura osasungarriak praktikatzearen garrantziarekin batera.

Parte hartu nahi duten pertsonak izena eman dezakete otsailaren 6tik 19ra, aipatutako Zerbitzuan (RKEko hirugarren solairuan) edo 94 466 00 22 telefono zenbakian.

Aste Santurako izenematea ludotekan

Otsailaren 9tik 20ra zabalik egongo da Areetako Kuku-praka ludotekak Aste Santuko oporretan eskainiko dituen jardueretarako izena emateko epea.

Oraingoan, 36 plaza izango dira 2015etik 2020ra (biak barne) jaiotako haurrentzat. Lehen txanda martxoaren 30etik apirilaren 1era izango da eta bigarrena apirilaren 7tik 10era, 10:30etik 13:30era, Romo ikastetxean. Izene-mateak eta informazioa: <https://labur.eus/5EVR8>.



Bestalde, mila lagun inguru hurbildu ziren Aretora erakusketak, tximeleten oasia eta dortoken putzua bisitatzeko edo baliabideen zentroan kontsultak egiteko (goiko solairuan dagoen liburutegi txiki bat da, 200 lan eta azterketa inguru dituen).

Ikasturte honetan, batez ere, asteburuetako jardueren eskaintza handitzeko lan egin da, eta adin guztietako jendearentzako 3 jarduera berri egin dira, hala nola Boluetik egindako ginkana fotografikoa.

Ingurumen Aretoa urte osoan irekita dago, abuztuan izan ezik, Larrañazubi auzoko instalazioak bisitatu nahi dituen edonorentzat. Ordu-tegia: 10:00etatik 14:30era eta 15:30etik 17:30era, lanegunetan, eta 10:00etatik 14:00etara, asteburuetan eta jaiegunetan.

Argibideak: <https://www.ingurumenaretoagetxo.eus/> Tel.: 688883596.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Saialak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



Jon Plazaolaren “Aita” aitatasunari buruzko komediarako sarrerak agortu dira

Jon Plazaola aktore, umorista, aurkezle eta gidolari gipuzkoarra, ostiralean, otsailak 6, iritsiko da Muxikebarrira, *Aita* antzeztera. Aitatasunari buruzko komedia da, eta sarrerak agortu egin dira.

Errezitaldi poetiko-musikala, RKEn

Otsailaren 6an, ostirala, Romo Kultur Etxean Angela Figuera Aymenrich idazleari eskainitako errezitaldi poetiko-musikala izango da.

19:00etan hasiko den ikuskizunean, Bizkaiko Elkarte Artistikoko Errezitazio Tailerretako rapsodek, Monse San Clodiok zuzenduta, Markel Intxaurbe gitarra-jotzailea izango dute lagun.

Euskarazko ikuskizuna 20:00etan hasiko da, eta Plazaolak aitatasunak eman dion guztia partekatu nahi du. Aktoreak *Tu-Tum; Platz!* obra estreinatu zuen duela bi urte, bere lehen semea jaio eta hiru egunera; aitatasun-bajari muzin eginez. Aitortzen du ez zuela aita-senik, baina orain pozez zorutzen dagoela. “Nire poz handienek iturria da, baina baita nire dramarik handienena ere. Errusiar mendi batean bizi gara. Egunero pentsatzen dugu zein gauza polita egin dugun, baina baita zer deabru egin dugun ere!”.

Orain publikoarekin partekatu nahi du bi urte hauetan aitatasunak eman dion guztia. Esperientzia onak eta funtsezkoa partekatzea: mina monetizatzea. Aitatasuna ere aitzakia izango da norberaren eta besteren patetismoaz eta ergelkeriaz hitz egiteko.



“Kaka”, ezkututzen dugun guztia azaleratzeko festa

Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala, Iñigo Aranbarri eta Ainhoa Aierbe Muxikebarrirako oholtzara igoko dira otsailaren 7an, larunbata, *Kaka* euskarazko antzerki muntaia antzetzeko. “Gizabanako

gisa, kolektibo gisa, herri gisa batzen gaituena izan arren ezkututzen dugun hori guztia azaleratzeko festa” da. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 12 eurokoa da.

Abra Sariaren beste edizio bat

Abra Saria bertsolari gazteen sariketaren beste edizio bat izango da larunbatean, otsailak 7, ALBEK antolatuta, Udalaren, Abian elkar-tearen eta bi ostalari-zentroren laguntzarekin, besteak beste.

Lehen kanporaketa, 17:30ean, Saniko tabernan izango da, Irune Basagoiti (Ermua), June Aiestaran (Beasain), Hegoi Amabizka (Gasteiz) eta Beñat Zeberio (Asteasu) bertsolarien partaidetzarekin. Bigarrena 19:00etan hasiko da, Las Barreras tabernan, Bittor Altube (Abadiño), Kattin Madariaga (Arantza), Aitor Taiegi (Oñati) eta Enara Gallastegirekin (Dima). Saio bakoitzeko lehen biak finalerako sailkatuko dira. Hori 21:00etan izango da Abian Kultur Elkartearen egoitza.



Juan Ortiz Trioren jazz “Neguko bidaia” musika zikloan

Juan Ortiz pianista bilbotarraren hirukoteak *Tokyotik etxera bueltan* kontzertua eskainiko du larunbat honetan Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, *Neguko bidaia* zikloaren barruan. Errezitala estatu mailan jazzaren erreferente nabarmenak diren David Ruizek, kontrabaxuan, eta Miquel Asensiok, baterian, lagunduta egingo da, eta 19:30ean hasiko da. Sarrerak 5 euro balio du. Juan Ortiz jazz pianista talentuduna da eta sari ugari jaso ditu. Bere kezka musikalek mundu osoko agertokietan aritzera eraman dute, Amsterdametik Calcuttara, Londrestik edo Tokiotik igaroz. Hamar urte baino gehiago Japoniako hiriburuan bizi ondoren, etxera itzuli da, eta bertan aurkeztuko du lehen aldiz bere azken bi diskoetako musika. Bere proposamen musikalak bluesean, jazz tradizionalan eta bebopean oinarritzen da, lotura japoniar sendoarekin.

“Magia mundiala”, Eleder Magoaren familia-ikuskizuna

Agortu egin dira Eleder magoak igandean, otsailak 8, 18:00etan Muxikebarrin eskainiko duen *Magia mundiala* ikuskizun familiarerako sarrerak.

Bereziki 4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta euskarazko ikuskizuna da, non, hasi eta berehala, mundu errealeko arauak funtzionatzeari uzten dioten. *Magia Mundiala* saioak irudimenak agintzen duen esperientzia bat eskaintzen du, non edozer gauza, txikia izan arren, une magiko bihur daitekeen. Eleder magoak ilusioekin jolasten du eta misterio txikiak planteatzen ditu, haurrek dantza eta musika pintzelkadekin bidaia dibertigarria



egin dezaten, magia ez dagoela ikusten dugun horretan bakarrik, baizik eta sinesteko prest gaudean. Familiarekin primeran pasatzeko aukera bat da.

Biotz Alai koralista bila

Algortako Biotz Alai abesbatzak koralista berrientzako deialdia ireki du. Betekizunen artean daude konpromisoa, motibazioa, ikasteko gogoia, belarri ona izatea eta abes-atea gustuko izatea, eta 60 urtetik beherakoa izatea (ez da erabakigarria). Abesbatzak, berriz, giro eta giza talde bikaina eskaintzen du, etengabeko prestakuntza, musika proiektuetan parte hartzea, dibertimendua, adiskidetasuna eta harmonia, eta entsegu lokal modernoak jabetzan (Telletxe 2A-2B, lonjak). Interesa duten pertsonak proba bat egin beharko dute abesti bat (librea) kantatzeko, eta bertan ikusiko da bere tesitura. Entzunaldiak ostegunetan izango dira, 19:00etatik 19:30era.

Informazio gehiago: www.biotz-lai.com eta 675 50 35 63 telefonoan.



Udalak udalerriko sei saltoki saritu ditu “Getxo Hurbil” sarien III. edizioan

Udalak *Getxo Hurbil* merkataritza-sariak banatu zituen joan den asteartean, otsailak 3. Muxikebarrin egindako ekitaldian, sei saltokik jaso zuten errekonozimendua sari horien hirugarren edizioan. Sari horien helburua da udalerriko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduak aintzatezea, sustatzea eta ikusaraztea, eta sektoreko eragileen lana nabarmentzea. Epaimahai kualifikatu batek enpresa sarituak aukeratu ditu herritarrek, merkataritza-elkarteek eta sektorearekin lotutako beste erakunde batzuek aurkeztutako 120 hautagaitzaren baino gehiagoren artean.

Tradizioa eta ibilbidea: Aberasturi izozkiak

Sari hau 20 urteko baino gehiagoko ibilbide komertziala duten saltokiei zuzenduta dago, garai berrietara egokitu direnei, beren funtsari eutsiz eta sustraiei uko egin gabe. Ibilbide luzea izatea eta urteetan zehar garai berrietara egokitzea baloratu da, baita jatorrizko esentzia beraz belaunaldien arteko erreleboa ere.

Komertzio sortu berria-Ekintzailtza: Belarri's

Azken 3 urteotan ireki duten komertzioei zuzenduta dago, bereziki beren inpaktuagatik, originaltasunagatik, ekimenagatik, ahaleginagatik, negozio ereduagatik... nabarmendu diren ekin-tzaileei.

360° Iraunkortasuna: Nothink

Kontsumo arduratsua edo ingurumenarekiko eta gizartearekiko errespetuzkoa sustatzen duen negozio ereduak duten saltokiei zuzendua, betiere GJHrekin (Garapen Iraunkorreko Helburuak) lotuta daudenei, bai hurbileko produktuak, produktu ekologikoak eta sasoikoak saltzeagatik,

bai ekonomia zirkularrarekin lotutako balioak lortzeagatik, bai Zero xahutzeagatik, bai hondakinen kudeaketa egokiari buruzko ekimenak egiteagatik, bai energia edo ura aurrezteagatik, bai gizarteratze-programak garatzeagatik, bai aukera-berdintasuna sustatzeagatik...

Berrikuntza. Negozio eremuan eraldaketa: Mi mundo de azúcar
Beren produktuei balioa gehitu dieten zerbitzuak arrakastaz eskaini dituzten saltokiei zuzendua, baina ez soilik teknologia-

-mailan, izan daiteke salmenta modu edo zerbitzu berrien bidez, salmenta-puntuak egokitzapenak eginez...

Ekin merkataria saria: Irati

Udalerriko enpresa-parkea dinamizatzearrekin lotuta dauden saltokiei zuzendua, hain zuzen hainbat jardueratan eta programatan parte hartuz edo lankidetzan jardunez: KaiShop, GetxoAktibaTU!, Gabonetako kanpainak, GetxoBono, Izakinen Merkaturia, elkarteek antolatutako dinamizazio-kanpainak, tokiko erosketa

sustatzeko banakako kanpainak, aholkularitza-programak...).

Getxoko arima: Amets

Eguneroko kontsumorako hurbileko saltokiei zuzenduta dago, beren ezarpenagatik eta beren identitateagatik funtzio soziala betetzen dutenei, arrazoia edozein dela: zerbitzu-bokazioa, berezitasuna (bertako artistak hartzen dituztelako; artisau-produktuetarako, artistentzako txokoren bat dutelako...), bezeroei arreta emateko duten modua (euskara) eta Getxoko ikur izatea.



“Sobre las cinco almas de Francesco Pasquale”, narrazio independenteen bidez idatzitako nobela

Unai Elorriaga López de Letona algortar idazleak (1973) bere azken liburua aurkeztu du Romo Kultur Etxean: *Sobre las cinco almas de Francesco Pasquale*. Jatorriz euskaraz idatzia (*Francesco Pasqualeren bosgarren arima*) eta egileak berak itzulia, narrazio independenteen bidez idatzitako eleberria da, osotasun bat egiteko korapilatzen diren kontakizunen bidez. Horrela, usain eta ate irekien bidez, arkitektura narratibo berezi bihurtzen da, zenbait puntutan, irudi oniriko bereziekin apaindua.

Sinopsiarekin arabera, Francesco Pasquale Saprinen jaio zen, Bi Sizilietako Erresuman, Giuseppe Verdi baino apur bat hegoalderago, Richard Wagner edo Robert Schumannen urte berberetan, eta liburu honek bere ibilerak, bidaiak kontatzen ditu, hiru konpositore horien existentziaren hiru une erabakigarriak hurbiltzen gaituen bezala. Francescok migratu zuen, Wagnerrek bezala, ume hilak hazi zituen eta Italiaren batasuna desiratu zuen, Verdik bezala, eta mamuekin bizi izan zen, Schumannekin bezala. Francesco Pasquale pertsona bakarra izan zen, hainbeste non irakurle bakoitzak bere antza duen. Hain berezia izan zen, ezen ez baita beti bere bizitzako protagonista; pauso bakoitzean, bere biografiaren rol nagusia mediku ospetsuei, ekintzaile politikoei edo nortasun suntsiezina duten emakumei ematen die. Francesco Pasqualek, bere bizitzan zehar, XIX. mendeko giza mapa bat marrazten du.

Erakusketa Bizkaia Zubiaren pasabide panoramikoan

Bizkaia Zubiaren pasabide panoramikoak aire zabaleko erakusketa berri bat hartzen du, ondarea, arte garaikidea eta paisaia industrialak uztartzen dituen espazio berezi bat. Erakusketa zubiaren orga osatzen zuten sei gurgil zaharrek osatzen dute. Gurgil horiek makineria historikoaren jatorrizko elementuak dira, eta hainbat egilek artistikoki esku hartu dute, kolorearen, sormenaren eta berrinterpretazio garaikidearen bidez bizitza berri bat emanez.

Proposamen horrekin, Bizkaia Zubiak bere eskaintza kulturala zabaltzen jarraitzen du, eta funtzionatzen ari den azpiegitura historiko gisa ez ezik, ingeniariaren, memoriaren eta artearen arteko topagune bizi gisa ere sendotzen ari da.

